



## 1.-Etxean kontu kantari

Buletinaren bidez, etxean zuen seme-alabekin jolasean parte hartzeko aukera helarazi nahi dizuegu. Proposamen hau ikastetxean egiten denarekin bateratu nahi genuke; etxean ere, tradiziozko euskal kantak eta jolasak erabiltzeko. Noiz? Edozein unetan, kalean, autoan, etxean lasai gauden une batean... Hizkuntzarekin lotura motibagarriak lortuko ditugu, haurrarekin batera une goxo eta dibertigarriak sortuko ditugu, hizkuntzaren soinak eta doinuak garatzeko lagungarriak direnak... Adin tartea ez dugu kontutan hartu, txiki-txikienekin eta koxkorragoekin ondo pasatzeko.

Hau da gure proposamena!!

## 2.- Ipuinez ipuin

Urte hauetan, pixkanaka ipuin bildumatxo bat osatu dugu Adin tarte desberdinetan erabiltzeko gaia eta garapen desberdina duten ipuinak. Txikienezat direnak adin tarte guztietan dira egokiak. Txikiak direnean, kontatuko dizkiegu abenturatxoak gure hitzak erabilia; handitzen diren neurrian, helduek irakurriko dizkiegu eta koskortu eta irakurketan trebatzen direnean, haiek irakurriko dituzte gure laguntzarekin edota gabe ipuin erraz hauek; [Txirrist barraskiloa](#) da era honetako gure lehen proposamena. Bigarren aukera [Azenario soroa](#) neska-mutil koxkorrentzat, trama zailxoagoa duen ipuina dugu, guk kontatu eta hartaz gozatzeko. Eta [Enperadorearen jantzi berria](#), azken aukera neska- mutil handientzako, haiekin batera irakurketa partekatzeko. Narratzailea eta pertsonaiak bereizten baditugu eta irakurle bakoitzak pertsonaia desberdin baten ahotsa hartzen badu irakurketa dramatizatu bat egin dezakegu.

Abrite portas, klis-klas!!!

## 3.- Gela barnean

Lehen zenbaki honetan aurkitu dugun liburu mordoxka, eskaini nahi dizuegu, oraindik asko falta dira, baina horiek beste saio batzuetan sartuko ditugu. Modu askotan aurkeztuko ditugu hauek: banan bana, ekimen desberdinak bideratzeko prestatuak; ikuskizun moduan aurkeztuak, gauza bitxiak bezain ederrak erakusteko; zerrendak eta sailkapenak, erabiliko ditugu aurki aurkeztuko dugun bibliografia sailkatuan... Beti ere saiatzen gara liburu onak bilatu eta zuei ekartzen, etxean eta gelan hauekin gozatu eta haurren mundua liburuen bidez aberasteko.

Begira egiozue gure proposamenari!

## 4.- Egitasmoa martxan

Bularretik Mintzora, 2008. urtean abian jarri zenetik eta gaur arte etengabeko hedatze prozesuan ari da. Gaur egun, 21 herri daude bere tripetan: 51 ikastetxe, 473 irakasle formazioa jasotzen eta honen ondorioz, 7.684 haur eta beraien familiek gozaten dituzte honen guzti honen emaitzarik gozoenak. Partaide eta ekintzaile guztiei, urte guzti hauetan bide lagun izateagatik gure eskerrik beroena luzatu nahi diegu. *Zuek gabe, hau ez litzateke posible izango. Eskerrik asko!*  
2015-2016 ikasturte berri honetan asko dira herrietan egiten ari garen ekimenak. Begiratu [hemen](#). Gure proposamenen menua [hementxe](#) eskuragarri.